

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5359

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 27koa, Hizkuntza Politikako sailburuordearena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2025eko uztailaren 1ean emandako Aginduan finkatutako dirulaguntzak esleitzen dituen (Hedabideak deialdia).

Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko modua arautuz (Hedabideak deialdia), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2025eko uztailaren 1ean emandako Aginduak finkatutakoari jarraituz (EHAA, 2025eko uztailaren 7a, 132. zk.) eta, aldi berean, Balorazio-batzordeak egindako proposamena gogoan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Goian adierazitako Aginduan finkatutako baldintzak bete dituzten egitasmoak diruz laguntzea (eranskina).

2. artikulua.— Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko Erregimen Orokorra arautzen du. Dekretu horren bigarren apartatuari jarraikiz, interesdunetako hiruren kasuan 2025eko lehenengo ordainketa behin ebazpen hau emanda eta interesdun horiek berme erreala jartzetik salbuesten duen Erabakia onartu ondoren gauzatuko da. Aipaturiko hiru interesdunak hauek dira: Donostialdea Ikusentzunezkoak SA, Herritar Berri SL eta Komunikazio Biziagoa SAL.

3. artikulua.— Interesdunei ebazpen hau jakinaraztea.

4. artikulua.— Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, herritar orok jakin dezan eta ebazpenak jakinarazpen ondorioak izan ditzan. Hala ere, argitalpena ez da oztopoa izango beste mota bateko jakinarazpena egiteko. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat, 39/2015 Legearen 41.7 artikulua ezarritakoari jarraituz.

5. artikulua.— Laguntza-eskatzaileraren bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko aukera izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 27a.

Hizkuntza Politikako sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK

Interesduna	Proiektua	Espedientea	Eseipena					Ordainketa				
			2025	2026	2027	2028	Guztirako esleipena	2025	2026	2027	2028	2029
Bertsozaleak Kultur Elkarte	Bertsolari proiektua	023-EHE-2025	41.235,02	41.121,35	38.589,91	39.141,60	160.087,88	22.679,26	41.172,50	39.729,06	38.893,34	17.613,72
Codesyntax SL	Sustiatu	015-EHE-2025	34.402,06	32.348,38	31.577,67	30.754,56	129.082,67	18.921,13	33.272,54	31.924,49	31.124,96	13.839,55
Dantzan.com	Dantzan.eus	003-EHE-2025	42.280,67	40.096,44	39.827,50	39.788,29	161.992,90	23.254,37	41.079,34	39.948,52	39.805,93	17.904,74
Hedatzeko Elkarte	HamaikaTB	014-EHE-2025	688.154,04	691.958,14	704.874,88	708.910,17	2.793.897,23	378.484,72	690.246,30	699.062,35	707.094,29	319.009,57
Donostialdea Ikusentzunezkoak SA	Elhuyar Fundazioa	021-EHE-2025	91.596,57	96.193,21	96.965,49	95.953,31	380.708,58	50.378,11	94.124,72	96.617,96	96.408,79	43.179,00
Enpresabidea SL	Enpresabidea	004-EHE-2025	49.000,00	60.000,00	68.500,00	69.000,00	246.500,00	26.950,00	55.050,00	64.675,00	68.775,00	31.050,00
Euskal Herriko Bertsozale Elkarte	bertsoa.eus	001-EHE-2025	50.531,42	48.005,54	48.027,09	47.467,61	194.031,66	27.792,28	49.142,19	48.017,39	47.719,38	21.360,42
EHE												
Euskal Irrati Zerbitzuak SL	Naiz irratia	005-EHE-2025	310.973,45	299.525,26	292.138,72	286.927,70	1.189.565,13	171.035,40	304.676,95	295.462,66	289.272,66	129.117,46
Euskaraz Koop S	Aizul aldizkaria	019-EHE-2025	91.707,18	91.269,83	90.638,70	90.193,30	363.809,01	50.438,95	91.466,64	90.922,71	90.393,73	40.586,98
Gazteazulo Txikia	Gazteazulo	018-EHE-2025	105.825,41	106.341,47	109.945,00	110.715,55	432.827,43	58.203,98	106.109,24	108.323,41	110.368,80	49.822,00
Herritar Berri SL	Gaur8 eta bidaia	007-EHE-2025	400.980,73	386.074,17	379.000,80	373.637,45	1.539.683,15	220.539,40	392.782,12	382.183,82	376.050,96	168.136,85
Jakin Fundazioa	Jakin	008-EHE-2025	118.393,96	115.849,13	114.267,99	113.403,49	461.914,57	65.116,68	116.994,30	114.979,50	113.792,52	51.031,57
Jorge García Gonzalez	Txirinduluriak.eus	010-EHE-2025	16.638,20	17.238,20	15.838,20	14.438,20	64.152,80	9.151,01	16.968,20	16.468,20	15.068,20	6.497,19
Komunikazio Biziagoa SAL	Argia komunikazio proiektua	022-EHE-2025	791.458,18	812.042,48	809.384,19	819.882,91	3.232.767,76	435.302,00	802.779,55	810.580,42	815.158,49	368.947,30
Mediagune Euskara Sustatzeko eta Gizarteratzeko Elkarte	Egkz	012-EHE-2025	128.335,26	124.885,47	123.611,77	123.186,42	500.018,92	70.584,38	126.437,88	124.184,94	123.377,82	55.433,90
Podcastfilia SL	Ulua	002-EHE-2025	75.000,00	75.000,00	75.000,00	75.000,00	300.000,00	41.250,00	75.000,00	75.000,00	75.000,00	33.750,00
Shareak Kultur Elkarte	Gazte Sharea	016-EHE-2025	90.447,87	86.986,54	85.641,77	84.843,38	347.919,56	49.746,33	88.544,13	86.246,91	85.202,65	38.179,54
Udako Euskal Unibertsitatea U.E.U.	Uztaro, Giza eta Gizarte-Zientzien aldizkaria	006-EHE-2025	21.719,43	20.365,55	19.657,62	19.120,20	80.862,80	11.945,69	20.974,80	19.976,19	19.362,04	8.604,08

Interesduna	Proiektua	Espedientea	Eseipena					Ordainketa				
			2025	2026	2027	2028	Guztirako eseipena	2025	2026	2027	2028	2029
Unibertsitario Vasco Navarro SL	Proy. com. intergene.: Uniendo Generaciones a través del Euskara	020-EHE-2025	50.874,61	51.971,29	54.340,81	57.169,14	214.355,85	27.981,04	51.477,78	53.274,53	55.896,39	25.726,11
Xangorin Koop Elkarte Txikia	Hik hasi egitasmoa	011-EHE-2025	135.000,00	131.212,59	130.458,39	133.631,45	530.302,43	74.250,00	132.916,92	130.797,78	132.203,57	60.134,16
Xoratuñan SL	Zuzeu orainkaria (+...)	017-EHE-2025	61.037,53	60.735,55	59.727,88	55.198,20	236.699,16	33.570,64	60.871,44	60.181,33	57.236,56	24.839,19
Zinea Sortzen SL	Zinea hedabidea	013-EHE-2025	67.408,41	73.779,41	74.985,62	74.637,07	290.810,51	37.074,63	70.912,46	74.442,83	74.793,92	33.586,67
		Guztira:	3.463.000	3.463.000	3.463.000	3.463.000	13.852.000	1.904.650	3.463.000	3.463.000	3.463.000	1.558.350